



# HEZITZAILEEN JARRAIBIDEAK

Atzo, martxoaren 16an, arratsaldeko seietan, Hezkuntza Sailak sindikatuei helarazi zigun Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen jarraibide osagarria, eskola-jarduera presentziala etenda dagoen bitartean, lan-legepeko hezitzaileek lanpostura joateko duten araubideari buruzkoa. Espero genuen bezala, joan den ostiralean irakasleentzat argitaratutako instrukzioak jasotzen zituen baldintza berberak aplikatuko zaizkio gure sektoreari ere.

Gainera, irekita zeuden administrazio-prozesuak ere etenda geratzen zirela jakinarazi ziguten, bestelako agindu bat eman arte. Gure sektorean momentu honetan irekita zeuden birbaremazio-prozesua, giza fondoa eta prestakuntza fondoa eta hezkuntzako hizkuntza-eskakizunak lortzeko prozesua. Salbuespenezko egoera hau amaitzen denean, data berriak irekiko dira aipaturiko prozesuetarako.

STEILASetik ez dugu ulertzen ostiraleko zirkularrean gure sektorea jasota ez egotearen arrazoia eta horrela jakinarazi genion Departamentuari. Atzerapen horrek nahasmen handia sortu du hainbat ikastetxeetan, eta tratu diskriminatzailea jaso dute gure sektoreko langileek.

Berriak jasotzen goazen heinean, helaraziko dizkizuegu.

Animo eta ondo izan!

STEILAS

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba 📞 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia 📞 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa 📞 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus